MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2007ko azaroa - 67. zenb.

KALAPUTXI

HITZAREN AMETSA EGIA BIHURTU DA

HERIOAREN ORDUARI BEGIRA

MIRUAITZEKO HARROBIA ZABALTZEAR?

gitarraren harmoniaren laguna

miguel laguna



- Etxea apaintzeko proiektuak
  - Altzariak
    - Sukaldeak
      - Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.euskalnet.net

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU
Telefonoa: 943 60 34 68 / 635 74 83 93
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 2.000 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Maketazioa: 11barri.
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordeiza-k
diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6-7
Bi hitzetan	8-9
Komikixa	9
Teknologia berrixak	10
HITZA	11
Hezkuntza	12-13
Karenka	14-15
Gizartia	16-17-18
e-gazte	19
Historixa	20-21
Ingurumena	22-23
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	25
Agenda	26

IRITZIA

PIXKA BAT ES MUCHO

Bai eta ez.

Hasiko naiz esaten gustatzen zaidala herriaren sarreran ikustea "Mutrikun euskaraz bizi gara". Baina, barren-barrenean, zer esango dizuet ba..., ez dut sinisten egia denik! Azken neurketa egin zenetik hona, daukadan sentsazioa da, erabilpena jaitsi egin dela. Ez duzue hala uste?

Ez naiz negar egitearen aldekoa, eta zerbait egin nahiko nuke eta ez dakit zer.

Herri euskalduna izateaz harro gaude? Nire ustez, lehenengo aukeran, aitzeki-maitzeki, edo besterik gabe, bapatean pasatzen gara erdarara.

Baten batek pentsatuko du ia zer daukadan beste hizkuntzen kontra. Ba ezer ez. Bakarrik hizkuntza haundi eta erraldoien zaparraden aurrean babestu beharra ikusten dudala, hain baliotsua, txikia eta zaharra den geurea; uholdeak arrastatzen gaituelako; ekaitzetan xirarik, babesgarririk gabe ibiltzen garelako; nahitaez, higadura edo desgastea ekidin ezinean gabiltzalako.

Zerbait egin beharra edukiko dugu ba, igogailuak erdaraz hitz egiten badigu; ofizialak ez diren oradainagiri eta gutun gehienak erdara hutsez jasotzen baditugu; etxeko komunitateko aktak erdaraz idatzita badaude; oharrik txikienak ere guri zuzenduak ez badira; tabernari/dendariak, bi txikito/zenbat da? ulertzen ez badigu... Niri ez zait normala iruditzen.

Orokorrean, "pixka bat es mucho" leloak, gure kasuan, herritar gehienoi ez digu balio. Ezin da ukatu lelo indartsua eta kanpaina interesgarria dela, zuzenduta dagoena inoiz zerbait ikasi eta hitz egiten hasi orduko utzi zutenei; ikasketak euskaraz egin eta mila arrazoirengatik erdera erabiltzen dutenei...

Bada ordua hizkuntza normalizazioaren zakua denon artean betetzen joateko! Ez dadin izan zulodun zaku bat bezalakoa, batetik sartu eta bestetik irtetzen den horietakoa. Badaukazu gogorik gai honetaz jarduteko pixkat? Animo, jarri zaitez gurekin harremanetan.

Amaia Andonegi Egurbide

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza)	943 60 43 00
DYA Mutriku	943 60 33 17
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Odol emaleen taldea	943 60 39 30
Javier Otxagabia botika	943 19 50 26
Lon Apraiz botika	943 60 32 50
Larrialdiak	943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua	943 60 70 48
	679 16 25 00
Udaletxea	943 60 32 44
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Itsas etxea	943 60 34 00

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 36 27
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua	943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza	943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza	943 60 38 71

ZEBITZUAK

Pesa	902 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05
Hondarribiako aireportua	943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia	943 60 41 82
Kiroldegia	943 60 31 75
Gasolindegia	943 60 32 10
Miruaitz Frontoia	943 60 46 79

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA

Astegunetan: 7:20tik 21:20ra, orduro / Jai egunetan: 8:20tik 21:20ra. orduro

ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro / Jai egunetan: 7:55etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-...-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-...-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -...-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -...-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / ... / 21:43 — Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13 — Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

AZAROA	
23tik 25era	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)
26tik 29ra	Lon Apraiz
30ean	Jabier Otxagabia
ABENDUA	
1 eta 2	Jabier Otxagabia
3tik 6ra	Amaia Zalduegi
7tik 9ra	M.C. Riveiro
10etik 13ra	Jabier Otxagabia
14tik 16ra	Lon Apraiz
17tik 20ra	M. C. Riveiro
21etik 23ra	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Jabier Otxagabia)
24tik 27ra	Lon Apraiz
28tik 30era	Jabier Otxagabia

Botikak OTXAGABIA: 689 58 57 59 • APRAIZ: 630 05 50 97
ZALDUEGI: 669 26 22 01 • RIVEIRO: 667 33 88 90

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

gutunak



Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu. Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

PARKE BERRIXA

Igual goizo da oraindik erabakitzeko, baiña daguaneko parke berrixaren gaiñian hainbat eta hainbat komentarixo hasi gera entzutzen. Egixa esan, amaitxu berri dauan beste edozein obra moduan, elegantia do gure parkia, txukun. Materixal berrixak eta ugarixak, lehengo itxurrixa, tunela, egurrezko eserleku dotoriak, arbolak lehengo tokixan, botika aldera juteko aldapatxua...

Hala ere, komentarixuak horrek eta beste batzuk ere badira. Baten batek esan leike beti dauala protestia, baiña protestia arrazoitxuta dauanian, bidezkua izan leike, nik uste.

Kontua da, eta tontakerixa iruditxu leiken arren, jendiak garrantzi haundixa ematen dio horri, parke berrixan dindandorik ez dauala, eta zer da parke bat dindandorik gabe? Ipini deuen barkua ondo do, politxa eta modernua izan leike, baiña dindandua? Tokirik ez dauala balitz, baiña tokixa badauala ematen deu, ez?

Eserlekuak ere eman deue zer esana. Beheko parkekuak, esaten deuenez, ondo doz, baiña goiko partian ipini ditxuenak... Lehengo Plaza txikin ordu gehixen egoten ziranak zaharrak izaten ziran, eta horrentzako eserleku aproposik ez deu ematen dauanik. Gaiñera, banko gehixo egoteko tokixa dauala ikusten da.

Eta amaitzeko, bi andra gazteri entzundako galderia: Arkitektuak zerreitxio ez dixue galdetzen toki hori erabiltzen deuenai ze egotia komeniko litzakeen? Ala dana dakixe eurak?

B. A.

ZAIN GAUDE

Orduak une eta egunak ordu bilakatzen dira bihotzak poza duenean. Munduan eta bizitzan besterik egongo ez balitz bezala sentitzen gara horrelakoetan.

Uneak ordu eta orduak egun bilakatzen dira bihotzak min duenean. Munduan eta bizitzan besterik egongo ez balitz bezala sentitzen gara horrelakoetan.

Azken hilabeteko une luzeak eta ordu amaigabeak izan daitezela biharko pozaren hazi. Zauden tokian zaudela, eutsi goiari!

Osaba

ETA GURE KALEAK, NOREN OMENEZ?

Espainiako gobernuak lege berria onartu berri du, Memoria historikoaren inguruan diharduena. Ez naiz ni defendatzen hasiko espainiarren legerik, baina, kasualitatea, lege horren edukia gure Herrian hainbat jendek denbora luzean pentsatu izan duena ontzat ematera dator. Lehen esan zitekeen betiko jendea hautsak astindu nahian zebilela; orain, aldiz, betiko jende horrek legearen babesa du, batzuek hain hestu bete nahi izaten duten legearena.

Batek baino gehiagok pentsatuko du gure herrian diktaduraren garaiko arrastorik ez dagoela, baina uste dut egunero-egunero ikusi eta erabili egiten ditugula arrasto horiek, natural-natural erabili ere. Nahikoa litzateke norbera edo norberaren familikoak nahiz lagunak zein kaletan bizi diren pentsatzen jartzea. Kale horietako batzuk (zenbat ez dakit) frankismoaren garaian jarritako izenez ezagutzen ditugu eta, jakina, erabili ere izen horiek erabiltzen ditugu.

Conde kalea, Txurruka tenienteen etorbidea, Eulogio Ulacia plaza, Domingo Ibaibarriaga, J.M. Alcibar kalea, Alfonso Txurruka parkea, Modesto Txurruka... Izen horiek guztiak noiz jarri ziren, zergatik jarri ziren eta noren omenez jarri ziren ez dugu jakingo mutrikuar gehienok, baina, ziurrasko, horietako bat baino gehiago frankismoaren arrasto izango da.

Ez dakit zein herritan Francoren eskultura ikusi eta asaldatu egiten gara, berdin hiriburuetako eraikin publiko zaharretan falangeen ikurra ikusten dugunean. Mutrikun ere, oraindik ikus daitezke falangeen ikurrak, urruti gabe gainera. 50eko eta 60ko hamarkadetan eraikitako babes ofizialeko etxebizitzetan ipini ohi ziren plakek oraindik ere hor diraute, batek baino gehiagok, hormari josita.

Ona litzateke adibidez Kalaputxik inbestigazio lan bat egitea gure herriko kaleen izenen gainean. Horrela, herritarrok gehiago jakingo genuke gure historiaz eta, beharbada, betidanik horrela izan direla pentsatzen genuen hainbat gauzaren egokitasuna zalantzan jar liteke. Bide batez, legea bete ahal izateko laguntza eman balezake, denok pozik.

Eta badirudi hutsetik hasi beharrik ere ez dagoela, izan ere Xabier Basterretxea "Txordo" joandako azken urteetan informazioa bildu eta bildu ibili da kaleen oraingo eta lehenagoko izenen inguruko datuak bilduz.

Andiko

OLATZ HARROBIAN BERRIZ LANEAN HASTEKOAK OMEN



Aspaldian, komunikabideetan sarritan dugu Praileaitz kobazuloari buruzko informazioa irakurri eta entzuteko aukera. Esan daiteke jende asko dagoela gaiarekin sentsibilizatuta, batetik ondasun arkeologikoaren babesagatik, eta, bestetik, ingurumenaren gainean sortzen den eraginarengatik.

Etengabe aurrera doan gure bizimoduaren behar ase ezinak, baina, indar handia du, eta hain ugariak diren eraikuntza lanek eskatzen dituzten materialak nonbaitetik atera beharra dago. Besteak beste, harria. Urte luzeetan geldik egon diren Mutrikuko harrobiak berriz ere martxan jartzeko eskaria egin dute harrobien titularrek, eta hor dago eztabaida. Zabaldu egin behar al dituzte harrobiak?

Horren inguruan informazio gehiago jaso eta irakurleari eskaintzearren, Kalaputxik udaletxera eta Mutrikuko Natur Taldera jo du. Jarraian, batetik eta bestetik jasotakoak.

UDALEKO ITURRIA

Udaletxean udal arkitekto aholkulariarekin jarri gara harremanetan, eta gaur egun harrobiak zein egoeratan dauden galdetu diogu. Adierazi digu Miruaitzen dauden bi harrobietako baten titularra, Olatz harrobiarena, Financiera y Minera SA dela, eta 1985 urtean jaso zuela 30 urterako kontzesioa, 2015 urtera arte hortaz. Bigarren harrobiaren titularra Amenabar da (lehen Aperribai), San Blas harrobiarena, aurrekoaren baldintza beretan, hau da, kontzesioa 1985 urtean jasota 30 urterako.

Horrenbeste denboran geldik egon ondoren harrobia berriz martxan hasterik dagoen galdetu diogu jarraian. Horretan, udalerrian hirigintzarekin lotutako beste edozein jarduketarekin gertatzen den moduan, arau subsidiarioek agintzen dutenari begiratu behar zaiola adierazi digu arkitektoak. Arauek bi baldintza jartzen dituzte udalerrian harrobiak zabaltzeari buruz: Lehenengoa, harrobiak eremu jakin batean egitea; bigarrena, 1996ko uztailaren 3a baino lehenagoko esplotazio-baimena izatea.

Bi baldintza horiek bete dituztela ulertuta, Financiera y Minera SA esplotazio enpresak Eusko Jaurlaritzako Industria saileko Mehategiak zuzendaritzan Olatz harrobia martxan jartzeko tramitazioa hasi zuen. Horrela, aurkeztutako lan-plana onartu zuen Industria sailak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak bere baldintzak jarri zizkion. Amenabar, San Blas harrobiaren titularra ere tramitazioa hasita dago, baina oraindik ere Eusko Jaurlaritzaren esku dago gaia.

Lan planean esplotazioan ze kopuru eta zein denboratan aterako den zehazten da. Hona datuak: porlanetarako eta bete lanetarako 600.000 tona harri (240.000 m3) bi urteko epean. Beste modu batean esanda, bidaiako 25 tona eramateko gai diren 24.000 kamioi, egunean 56 kamioi, proiektuaren arabera.

Ingurumen sailaren baldintzei dagokienez, esplotazioan zehar ingurumena babesteko neurri zuzentzaileak zehazten dira, eta lanak bukatu ondoren ingurunea lehenegratu edo errestauratu beharra.

Esan beharra dago, bestela dela pentsa ez dadin, jarduketa ez dela harrobiaren horman egingo; alegia, hormak lehengoan jarraituko du bere gehiengoan, eta harria lurzoruaren maila jaitsita aterako da, harrobietako horma nagusiaren aurreko plataformaren maila jaitsita.

Jarduketa martxan jartzeko tramitazioa Jaurlaritzatik Udaletxera helduta, udalak jarduera lizentzia tramitatu behar du, herrian beste edozein negozio martxan jarri aurretik egiten den bezalaxe. Prozedura horretan, proiektua jendaurrean jarrita egon da eta alegazioak egiteko epean 28 alegazio aurkeztu dira. Alegazioetan bi arrazoiketa nagusi izan dira: Lehenengoa, kontzesioaren indarraldia kolokan jartzen duena, kadukatuta dagoela argudiatuta; bigarrena, harrobietarako sarbideei buruzkoa.

Aurrera begira, udalak, eskatua duen txosten juridikoa jaso eta aztertuta, eta esplotazio-enpresak sarbideak hobetzeko aurkeztu behar duen proiektua jaso eta aztertuta, aurkeztu diren alegazioei erantzuna emango die jarduera lizentziaren gaineko erabakia hartu aurretik.

NATUR TALDEAREN ITURRIA

Harrobien gaiak ingurumenarekin zerikusi zuzen-zuzena duenez, Natur Taldeko ordezkariengana jo eta beren iritzia jaso dugu:

Ezeren aurretik, argi utzi nahi izan dute Berdeak+Independeteak talde politikoak hauteskundeetara eraman zuen programan jasota zegoela kantera berriz martxan ez jartzea artadiaren barruan dagoelako, eta horri eusten diotela, bozka eman zion jendearen babes osoarekin.

Natur Taldearen ustez, kantera irekitzea erabaki politikoa da. Bai Jaurlaritzan, bai udalean baimenak ukatzeko eta proiektua atzera botatzeko nahikoa arrazoi egon bazegoen, baina, Natur Taldekoen ustez, enpresen indarra mutrikuarron interesen gainetik jartzen da. Gure herrian harrobietan berriz ere lanean ez hastea hainbat arrazoitan oinarritzen dute, ka-



pritxoetatik eta funtsik gabeko ezezko hutsetik haratago, eta horien berri herritarrei ematea garrantzitsua iruditzen zaie.

Udalera ailegatu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Mehategietako departamentuak ontzat hartu zuen Olatz harrobian berriz ere lanean hastea erregulazio baten ondoren, lan-plan jakin batekin eta Ingurumen sailak ingurugiroa babesteko neurri batzuk jarri zituen. Natur Taldeak alegazioak aurkeztu zituen, eta ingurugiroari buruzko batzuk kontuan hartuak izan ziren.

Mehategien legearen arabera sei hilabetetan geldik egotea nahikoa izanik ere, Natur Taldearen ustez harrobian azken hogeita hamarretik gora urteetan lanik egin ez izana nahikoa arrazoi da harrobiaren kontzesioaren jarduera iraungita, kadukatuta dagoela esateko eta justifikatzeko. Aldi horretan jarduera burutu dela frogatzen duen agiririk ez omen da oraindik agertu. Enpresa ustiatzaileak argudiatzen du itxiera-agiririk ez dela agertzen, baina Industria sailak eta Ingurumen sailak erregularizazio prozesua hasteko eskakizunak ondo adierazten du harrobi berri baten irekieraren aurrean gaudela, nahiz eta lagatako harrobi baten gainean egon.

Udalari dagokion fasean, jarduera lizentzia ukatzeko moduko arrazoiak egon daudela diote. Lehenengoa, arrazoi objetibotzat jotzen dutena, harrobietarako sarbideen ezegokitasuna. Izan ere, aurkeztutako lan-planean aurreikusten den kamioi-trafikoak itxo eta hondatu egingo du Olazko bidea, auzotarrentzat eta, oro har, herritar guztientzat arriskua sortuta. Gainera, kontuan hartu behar da Olatz auzorako auto-bidean kamioiak eta beste ibilgailuak parean eta aldi berean pasatzeko gune gutxi daudela (proiektuaren arabera, egunean 112 joan-etorri egingo dute kamioiek). Bigarren arrazoia, harrobiak martxan hasteak herriari onurarik ez diola ekarriko. Jarduera lizentziaren onuradun bakarra esplotazioaren jabe den enpresa pribatua eta, kostuak murriztuta, portua eraikitzen ari diren enpresak izango lirateke, interes pribatua hortaz, komunitatearentzako onurarik gabe inondik ere.

Bi arrazoi nagusi horiekin batera, beste batzuk ere agertu nahi ditu Natur Taldeak, beharbada jendearengan eragin zuzenik ez, baina ingurumenaren gainean eragin handia dutenak. Izan ere, Arnoko LIC (Komunitatearentzako Interesgunea) babesgunea harrobiaren ertzeraino iristen da, Artzainerreka alderako mendia, Arno babesteko arrazoi nagusi izan zen artadi kantauriarduna, LIC gunetik kanpo geratuta. Enpresa ustiatzaileak Industria sailean aurkeztutako eskaera kontuan hartuta, egungoa baino eremu zabalagoa ustiatzeko asmoa agertu zuten. Etorkizunean martxan legokeen harrobia harantz zabaltzeko tentazio handia izan daiteke, nahiz eta gaur egun guztiek esan hori ezinezkoa dela. Praileaitzen inguruan gertatutakoaz gogoratu dira Natur Taldekoak, eta beldur dira hemen ere horrelakorik gerta ote daitekeen.

Bestalde, jendeak pentsa dezake harrobian bi urtetan baino ez dutela lan egingo, baina halaxe uste zuten Mañarian ere, eta gaur egun, Euskal Herriko Auzitegi Gorenak emandako epaiei muzin eginik, hor dirau harrobiak lanean, dagoeneko hasierako planean aurreikusitako harri kopuruaren hiru eta lau aldiz gehiago aterata eta gelditzeko asmorik gabe, nahiz eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere berehala geldiarazteko exijitu duten.

Olatz harrobian lanean hasiko diren? Irakurle, ikusiko zenuenez, erabateko ziurtziaz ezin baiezkorik edo ezezkorik esan. Adi ibili datozen asteetan edo hileetan agertzen den informazioari.

ZUTABE
sukaldeko altzariak
DEKORAZIO PROIEKTUAK
-Neurriko altzariak
-Ateak eta lehioak
-Tarima eta parketak
-Horma-armairuak
-Etxetresna elektrikoak
Erdiko kalea,5 - Mutriku - Tel: 652 77 55 78 - Inaki Deuna,29 behea-Ondarroa

PINPIRIN
Maider Pinto
Barrenkalea, 9 behea Tel:943 029 134 / mug.:650 341 768

SORGIN IPUINAK ETA ITZAL-DANTZAK GABA BELTZEAN

Urriaren 31n Gaba Beltzaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu ziren herrian. Horien artean, Akelarre Antzerki Taldeak umeentzako eta helduentzako saio bana prestatu eta jokatu zuen. Irakurle batek argazkiak bidali dizkigu, ekitaldi hori jasota geratu behar delakoan.
Arratsaldeko zortzietan, euskal mitologiaren baitako sorginen ipuinak antzeztu zituzten Zabiel plaza bete zuten ume eta helduen gozamenerako. Beranduago, gauerdian, Beheko plazan helduentzako ipuin kontaketa eskaini zuten, eta, Mutrikun lehenengo aldiz, itzal-dantzak erabiliz eszenaratu zuten ipuin hori.
Akelarre taldeko 25 neska-mutilek gogor lan egin zuten emanaldien koreografiak lantzen, eta jendeak benetan eskertu zien egindako lan hori.

KILO BATEKO ONDDO BELTZA ARNO BIDEAN



Udazkenarekin batera gure Euskal Herriko basoak perretxikozalez betetzen dira, jaki estimatu horiek bila joanak. Gurean ere badago ohitura mendi bueltak egin eta arboladietan barrena onddo bila jarduteko.
Horrelako mendi buelta batean, Kike Urangak Arno bidean kiloa pisatu zuen Onddo beltza aurkitu zuen. Argazkian, Kike eta onddoa.

HERRIAN GASTATU, BERTAN GOZATU!

BERTAN Mutrikuko dendarien elkarteak azken urteetan gabon bueltan herriko umeentzako ikuskizunak antolatu izan ditu, nolabait, beren establezimenduetako bezeroen seme-alabei ekarpen bat egite aldera. Horrekin batera, bezeroen fideltasuna eskertzearren, 1000 euroko zozketa ere egin izan dute.
Aurten, urrats bat haratago egin nahi izan dute eta egun bateko ikuskizuna zena, aste osora zabaldu nahi izan du BERTAN elkarteak, udalaren laguntzarekin, eta horretarako Gabonetako Umeen Parke txikia antolatuko du abenduaren 26tik 29ra bitarte. Elkartearen arduradunek adierazi dutenez, bi helburu uztartu nahi dira ekimen horren bitartez: batetik, gabonetan egin ohi den gastua herriko dendetan egitea, eta, bestetik, dendetako bezeroen umeei aisialdira aukera eskaintzea. Bi helburu horiek uztartuta, mutrikuarrak Mutrikun geratzea eta erosketak herrian bertan egitea bilatzen du elkarteak.

Adierazitako egunetan goizeko 11etatik 13ak arte eta 16.30etatik 19.30ak arte frontoian zabalik izango den parke horretara sartu ahal izateko, aurrez elkartearen dendetan erosketen truke banatuko diren bonoak eskuratu beharko dira. Ordubeterako bonoak izango direnez, zenbat eta erosketa gehiago edota handiagoak egin orduan eta denbora gehiago eskaini ahal izango zaizkie etxeko umeei.

Parkean, besteak beste, ohe elastikoak, puzgarriak, zezen mekanikoa edota txikienentzako sikomotrizitate gunea izango dira.
Gabonetako Parkerako bonoak abenduaren 1ean hasiko dira partitzen BERTANeko dendetan. Egun berean, gainera, 1000 euroko zozketarako tiketak ere hasiko dira banatzen.

Hortaz, badakizu, irakurle, gasta dezagun Mutrikun eta goza dezagun BERTAN.

Vitoria Optika
OPTIKARI - OPTOMETRISTA
> Graduazioak eta audiometriak etxean bertan ere egiten ditugu.
> Audifono digitalak, audifono analogikoak, osagaiak...
> Eguzkiterako osagarriak...
> Ikusteko laguntza bereziak...
Iparkalle, 1 - ONDARROA Tel: 94 613 41 38 - mvitoria@cnoo.es

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

LEYRE ARRIETAK ESTACIÓN EUROPA BERE LIBURUA AURKEZTU DU

Leyre Arrieta Alberdi Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko irakasleak azaroaren 6an "Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)" bere liburua aurkeztu zuen. Liburua EAJk frankismoan izan zuen ibilbidearen inguruan dagoen hutsune historiografikoa gainditzeko ekarpena da. Egileak alderdiaren politika europazalea aztertzen du eta EAJren anbiguotasuna azpimarratzen: muturreko jarreren eta moderazioaren arteko penduluaren ohiko mugimendua. Era berean, alderdi honen aurpegirik modernoena jasotzen du, aurpegi demokrata kristaua, federalista eta europazalea.

Estación Europa liburuak EAJren (Euzko Alderdi Jeltzalea) politika europazalea aztertzen du 1945. urtetik (Munduko Bigarren Gerraren amaiera eta Europaren formulazio berriaren hastapena) 1977. urtera arte (Iruñeko Biltzarra eta alderdiaren aro berria). Aspaldidanik izan du presentzia Europak Euzko Alderdi Jeltzalearen ideietan, etorkizunerako aukera gisa ikusten zuelako eta bere etorkizunaren jabe izango den Euskadi Europan kokatzea azken helmuga duelako. Baina EAJren diskurtso europazaleak ez du erantzun egokirik aurkitu Europa EAJk proposatutako oso oinarri desberdinen gainean, kontrakoak ere izan daitezkeenen gainean eraikitzen ari baita: Estatuak.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoan gordetzen diren iturri dokumentalen analisi zehatzetan oinarritu da (horietako gehienak inoiz argitara eman gabeak eta ezezagunak) eta nazioarteko ingurunearen argitan egin du iturri horien interpretazioa; ez da mugatu kronika europazalea egitera edo EAJko burukideen presentzia deskribatzera Europako foroetan. Aitzitik, EAJren diskurtso europazalea "berreraiki" ahal izan du eta, oinarri sendoekin eta ikuspegi objektibotik, testuinguruaren, diskurtsoaren eta praxiaren arteko harremanen sare osoa ehundu.

JOSEBE ASTIGARRAGA LETE, ALKATE BERRIA

Azaroaren 10ean izandako udalbatzan Josebe Astigarraga Lete hautatu zuten hurrengo urteetan Mutrikuko alkate izateko. Josebek Estanis Osinalde alkateak zoritxarrez utzitako kargua hartu du. Gainera, hutsik geratutako zinegotzi aulkia Xabier Basterretxea "Txordo"k hartuko du.

ELEBILA, EUSKARAZKO BILATZAILEA

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak eta Eusko Jaurlaritzak ELEBILA euskarazko lehenengo bilatzailea lortu dute. Tresnak euskarazko edukiak bilatzen ditu Euskal Herriko zein atzerriko web guneetan.

Euskarazko edukiak lehenestea da bilatzaile berriaren helburua. Izan ere, eskura diren bilatzaileetan bilaketa bat egiterakoan ingelesezko webguneak agertzen dira lehendabiziko lekuetan, eta beste hizkuntza handietakoak (gaztelera eta frantsesa, kasu) ondoren. Euskara oso atzera geratzen da. Arazo horri aurre egiteko, bilaketa euskarazko webguneetan egingo duen tresna sortu du Elekak. Lanean hasteko helbidea: **www.elebila.eu**.

komikixa — Josu Ituarte "Pitxame"

MUTRIKUARRON BLOGOSFERA ERAIKITZEN

Herritarron kazetaritzaren aroa iristear omen dago. Gu geu izan gaitezke albiste, bizipen, poesia, erreportaje, eta abar luze baten eratzaile. Norbera jaun eta jabe izateko aukera, erraza eta merkea. Momentuko argitalpena, momentuko hedapena. Norberaren egunkari, aldizkari, irrati edo telebista pertsonala dugu. Beraz, aurki dugu grinez beteriko kazetarien plazaratzea.

Aspaldiotan edonon aurki ditzakegu blog helbideak. Web tradizionalekin alderatuta blogek milaka abantaila dituzte. Horra hor horietako batzuk:

Nahi duzuna idazteko aukera dugu, baita bideo, argazki, soinu, eta abartxertatzekoa ere. Bertan ikuspegi kritikoagoak ezagutzeko aukera izango dugu, errealitatea ezagutuz. Oraingo honetan ez baita komunikabidearen araberakoa argitaratzen den berria, blogariaren araberakoa baino. Ondorioz, idaztea ez da kazetarien lana soilik. Edonor izan daiteke une batez poeta, kazetari, iragarle.

Blogei esker komunikazioa bilaterala bilakatu da; egile eta hartzailearen partehartzea dugu, hartu-emana. Irakurleak partehartzaile aktibo bilakatzen da iritziak emanaz eta benetako ikamikak sortuz.

Blogen gaiei dagokienez, berriz, edozein gairen inguruan dihardute. Hedabideetan normalean jorratzen ez diren gaiak aurki ditzakegu. Badira musikaz, literaturaz, teknologiaz zein bizipen pertsonalez hitz egiten duten blogak... Amaigabeko blogosfera honetan denetik aurki dezakegu.

Gero eta gehiago dira euskaraz argitaratzen diren egunkari birtualak. Sarean euskararen erabilera handituz doa, euskararen erabilera (des)egokia. Euskara zabaltzeko modu erraz bat izan daiteke blogosfera, izan ere, blogetan erabiltzen den hizkuntza, normalean, norberak menperatzen duen hizkuntza da. Momentu honetan blogariek idazteko gehien erabiltzen duten hizkuntza japoniera dugu.

Euskaldunok euskara batuan zein bakoitzaren euskalkian idazteko joera dugu. Eta mutrikuarrok, ba al dugu idazteko zaletasunik? Bagoaz pixkanaka mutrikuarron blogosfera eraikitzen. Mutrikuko blog komunitatea martxan da; hori ikusteko, www.atxukale.com helbidera sartzea nahikoa dugu. Bertan ditugu blog bat eratzeko eta komunitateko kide egiteko eman beharreko pausuak.

Mutrikuarra edota Mutrikun bizi dena izan beharra dago. Plataforma birtual honetan euskaraz idaztea bultzatzen da, nahiz eta beste hizkuntzak tartekatuaz idazteko aukera izan (ez dago erdera hutsean idazterik). Euskara batuan zein mutrikuarrez, zeure esku.

Pixkana badoa lapazorrion blogosfera hedatzen. Dagoeneko badira blog batzuk; Galanixan, kateitxik arutz, Mutrikuko EA@GA, Samielako gora beherak, besteak beste. Politika, bertoko institutuko zein ikastetxeetako ikasleen bizipenak, jaiak, teknologia, denborapasak, kirola, kexak eta horrelakoak aurki ditzakegu bitakora mutrikuar hauetan.

Ez dut zalantzarik badela norbait zerbait kontatzeko gogoa eta gainontzekoekin partekatzeko grina duenik, mutrikuarron zein euskal blogosfera indartzeko prest dagoenik. Hortaz, guztiz gomendagarria.

Blogosferaren iraultza iritsi da eta Mutrikura iristear dagoela esan genezake. Badira 10 urte lehenengo bloga eratu zenetik. Egunero 120.000 blog eratzen dira, 3 blog 2 segunduro.

3, 2, 1... bloga eratuta! Zeren zain zaude?

Agurne Elorza



2007 urtea erronkaz beteriko urtea izan da Hitza egunkariarentzako. Instituzio publiko batzuen diru-laguntza faltak egoera ekonomiko zailera eraman du gure egunkaria, eta urtean zehar ekimen ezberdinak jarri behar izan dituzte martxan diru-iturri berrien bila. Azkena, jarraian aurkeztuko den liburua.

HITZAREN AMETSA EGIA BIHURTU DA

Baina hori gutxi balitz, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak beste helburu bat ere lortu du, eskualdeko kultur bizitzako eragile izatea. Oraingoan, urriaren bukaeran aurkeztu duten Ametsetarako hitzak ipuin-liburua daukagu horren lekuko.

Liburua, 6tik 10 urte bitarteko umeei zuzendua dago. Bertan, 10 ipuin eta 50 iruditan, umeentzako oinarrizkoak diren zenbait gai jorratu dituzte idazle eta marrazkilariek: adiskidetasuna, nortasuna, harremanak, errespetoa...

Dagoeneko herriko ikastetxeetan eta erredakzio bulegoetan salgai dago; aurrerago Durangoko azokan eta Santo Tomas azokan ere jarriko dute salgai 15 euroren truke.

Proiektuan eta helburuan guztiz sinestuta, prestutasun haundiz, eskualdeko 13 lagun aritu dira liburua egiten, beraien aletxoa eskainiz Hitzari eta bide batez, gu guztion gozamenerako oparia.

Yolanda Arrieta, Leire Bilbao, Jon Elordi, Ana Urkiza, Miren Agur Meabe, Joxemari Urteaga, Yolanda Larreategi, Karmele Jaio, Kirmen Uribe, Txili Lauzirika, Bittor Txakartegi, Bea Anitua eta Kaiet Bengoetxea dira, esku-artean daukagun liburu liluragarri honen errudun.

Ipuien magian ezkutatzen dena aurkitzeko gonbita egin nahi dizugu, eskualdeko idazleen haziaz loratutako arbolaz goza dezazun– dio Lore Bengoetxea Hitzako zuzendariak liburuaren aurkezpenean.

ESPERIENTZIA ESKOLA

Badira gure artean zenbait herritar Esperientzia Eskolan ibili direnak eta dabiltzanak. Berengana joan eta euren iritzi zein sentipenak jaso nahi izan ditugu. Horrexetarako elkartu gara Arantxa Agirregomezkorta, Mari Paz Lezertua eta Arantxa Eizagirrerekin. Hiru emakume hauek lehen hiru promozioetan hartu dute parte, hurrenez hurren. Hain gelditu dira gustura, gainera, ezen jarraitzeko erabakia hartu duten eta horretarako Ikasten izeneko elkartea sortu dute. Baina has gaitezen Esperientzia Eskola zer den azaltzetik...

Zer da Debabarreneko Esperientzia Eskola?

Debabarreneko Esperientzia Eskola, elkartrukerako gune irekia da: gizartean era positiboan eragiteko heziketa moduluak batzen dituen proiektua. Debabarreneko Esperientzia Eskola Debegesak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sortutako proiektua da. Eskola hau ikasteko eta gizartean era aktibo batez parte hartzeko gogoa duten bailarako 50 urtetik gorako pertsonei zuzendua dago eta ez da beharrezkoa aurrez titulaziorik izatea.

Zer ikasten da?

Ikasturtean zehar hiru gai multzo jorratzen dira:

Lehenengo, oinarrizko ikasketa multzoa: Gizarte harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, osasun fisiko eta mentalaren zainketa eta hobetzea, erlajazio teknikak eta beste asko.

Bigarren, gai espezifikoen multzoa: Soziologia kontzeptuak, informatika maila ezberdinen arabera, literatura, oinarrizko ekonomia, garapen iraunkorra, zuzenbidea eta bere erabilerak bizitzan, psikologia, filosofia, Debabarreneko kultura eta ohiturak eta abar.

Hirugarren, gizarte ekintzazko proiektuen teoria eta praktika. Ikasturte bukaeran proiektuak aurkeztu beharko dira taldeka.

Ikasturtean zehar ekintza osagarriak ere egingo dira: mintegiak, bisita kulturalak, e.a.

Zenbat denbora irauten du?

Klaseak ekainaren 6ra bitartean izango dira, astean hiru egunetan (astertea, asteazkena eta osteguna). Goizeko 9:30etatik 12:30etara, EHUk Eibarren duen kanpusean (Unibertsitate Laborala-Ingenieritza Eskola).

Agiririk ematen al dute?

Bai. Ikastaroa bukatzen duten guztiei asistentzia egiaztatzen duen diploma ematen zaie.

Proiektu horren berri eman ondoren, hona hemen zer kontatu diguten gure protagonistek:

"Gu pozak zoratzen gaude! Jende askok atzera egiten du etsaminak egongo direlakoan, baina ez dago azterketarik; hori argi laga behar da! Apunteak ematen dizkigute. Oso ponente onak izaten ditugu, jende inportantea izaten da eta, gehienetan, borondatez azaltzen dizkigute euren gaiak, dirurik kobratu gabe."

"Oso gustura aritzen dira irakaslerik gehienak. Egia esan, ez dira irakasleak, ponentek baino; adituak esatea hobeto legoke."

"Gu nahi dugulako joaten gara, ez obligaziorik dugulako. Nahiz eta askorik jakin ez, ez dugu lotsarik galderak eta komentarioak egiteko, eta guri hitzaldiak ematera etortzen diren aditu guztiak oso gustura gelditzen dira gure interes eta jarrerarekin. Eurentzat ere oso esperientzia aberasgarria izaten dela aitortu izan digute."

"Oso lagun onak egin ditugu, eta pozak zoratzen gaude horretan ibili garen guztiak."

"Denetako jendea joaten da, enpresagizon izandakoetatik hasi eta etxetik inoiz atera gabeko emakumeetara ar-

santalucía
ASEGURUAK
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA
Erdiko kalea, z/g · Tel.: 646351352 · 943201095 (24 ordu)

artizar
fisio lan taldea
San Agustin, 10 behea - Mutriku - 943 60 36 55
masajeak baino askoz gehiago

teko guztiak. Oso ondo moldatzen gara, zeren adituen hitzaldiak entzuten ditugu eta bakoitzak bere mailan jasotzen ditu gauzak. Batzuek apunteak hartzen ditugu, eta beste batzuek, entzun baino ez. Horretaz aparte, apunteak banatzen dizkigute denoi, eta hortxe gelditzen zaizkigu gehiago sakondu nahi izanez gero."

"Hasieran beldurrez edo sartzen zara: zeintzuk ote daude, zer egin behar ote da, kapaz izango ote naiz..."

"Ni zela izango naiz kapaz horra joateko, ez badaukat ikasketarik? Pentsatzen nuen. Baina ni pozik nago eurengandik ikasi egiten dudalako. Ni ez nau beldurtzen ni baino gehiago dakien jendearekin egon beharrak, ni ikastera noa eta; eurengandik eta adituengandik ikastera. Bakoitzak bere mailan jasoko ditu edukiak, baina hori oso aberasgarria da."

"Bizi poza ematen digu guri honela ibiltzeak, aktibo mantentzen laguntzen digu!"

Esperientzia Eskola ikasturte bakarrekoa da. Gero, jarraitu nahi duenak, etengabeko heziketa proiektu batean sartzeko aukera izaten du: IKASTEN. Ikasten elkartea lehen promozioko ikasleen artean eratu zuten. Izan ere ikasturtea amaitu ondoren hain zeuden gustura, ezen jarraipena nola eman antolatzen hasi ziren, eta poliki-poliki denen arteko lanak bere emaitza izan zuen eta, orain, gustura ari direnek etengabe jarraitzeko aukera paregabea dute.

Argibiderik nahi izanez gero, jo ezazue telefono honetara: 943 820 110, Itziar Elustondo.

ATXUKALE
- JOSTAILU DENDA.
- KIROLA.
- HAURTXOENTZAKO GAIAK.
Gabon-oparitarako aukera zabala, herritik atera gabe, prezio ezin hobean!
TEL.: (943) 60 39 59
Beheko Plaza, z/g

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

Musikazalea, musikagilea... Musikaz inguratuta eta musikan murgilduta ematen ditu orduak eta mezak. Gaztea izanik ere, bere bidean pausoka-pausoka doa Miguel Laguna. Badaki musikatik bizitzea zaila dela, baina berarentzat ezinezkoa da musikarik gabe bizitzea.

GITARRAREN HARMONIAREN LAGUNA

Zein izan da zure ibilbidea?
Hamalau-hamabost urterekin edo hasi nintzen gitarrarekin. Gogoan dut nire lehengusina batek nola utzi zidan gitarra zahar bat eta Iruñatik Mutrikurako bidean anaia eta biok kotxean gentozela gitarraren sokak urratzen hasi ginen. Hura gitarra klasiko bat zen eta nire kontura aritu nintzen ikasten; laster heldu nion gitarra elektrikoari ere. Autodidakta izan naizela esan badezaket ere, Mutrikuko musika eskolan ere aritu nintzen pare bat urte inguru ikasten; orduan gitarra klasikoarekin nenbilen. Esan behar dut, baita ere, beti izan dudala ondoan nire aurretik zihoan norbait aholkuak eman eta irakasteko. Horretaz gain, liburu ugari erosi, irakurri eta musika asko-asko entzun dut eta entzuten dut.

Zertan ari zara une honetan?
Soraluzeko musika eskolan ari naiz gitarra elektriko klaseak ematen. Era berean, Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioan ere ari naiz ikasten. Aurten lehenengoz atera dute gitarra klasikorako erdi mailako titulua. Goi mailakoa, berriz, Musikenen atera daiteke, baina hara iristea oso-oso zail dago. Eskaera mordoa izaten da baina sartzeko plaza gutxi; dena den, nire ametsetako bat horixe izango litzateke. Orain ikastea da nire helburu bakarra.

Irakaskuntzara dedikatzeko?
Irakaskuntzan ere errealizatua senti zaitezke, baina nire asmoak haratago doaz. Musika egin nahi dut, nire musika sortu...

Agian zerbait sortu duzu...
Bai, zerbait egin dut baina sekula ez zara asetzen eta beti daukazu gauza gehiago egiteko asmoa, beharra. Zuk zeuk sortzeko grina.

Kaleratu dira ala zuretzat gorde dituzu?
Kaleratu dira, bai. Nire lehenengo taldearekin, Aiumeen basoa taldearekin. Denak mutrikuarrak gara ermuarra den bat izan ezik. Hasi ginenean, duela urte dexente, denak mutrikuarrak ginen eta Donostiako beste bi talderekin diska bat grabatu genuen. Nik orduan 17-18 urte izango nituen, pentsa noizko kontuak diren. Geldiune bat izan genuen taldean, bajak egon zirelako eta orain heldu diogu berriro bideari. Diska grabatu berriak gara, gabon inguruan kaleratuko dena. Beste talde batekin "The Incult" taldearekin ere ari naiz, baina hau dibertsio gisa. Talde horretan bertsioak egiten ditugu, denak dira ondarrutarrak ni izan ezik. Kontzertu asko eman dugu baina oraingoz ez dugu ezer grabatu.

Hemengo disketxe batekin grabatu dugu eta Europan zehar zabalduko da gure diska.

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
Barrenkalea, 2
Tel.: 943 60 47 43
KRESALA
GAZTE ETA HELDUENTZAKO PUNTAKO MODA, NEGURAKO ESKAINTZA PREST DAUKAGU!

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

Zenbait talderen lanetan ere parte hartu omen duzu...
NOK taldeak duela hiru bat urte grabatu zuen diskoan neuk grabatu nituen gitarrak. UEK taldeak zuzenean grabatu zuen diskoan ere parte hartun nuen, eta taldearen kontzertu batzuetan ere bai. Txato Platorekin ere aritu izan naiz. Une honetan, nire taldeaz gain, nire ikasketek dute lehentasuna.

Nola ikusten duzu musikaren egoera?
Mutrikuri dagokionez ez dut uste kexatzeko moduan gaudenik, talde gazteak atera dira eta. Orain lokalak ere baditugu eta horrek asko laguntzen du, jendea badabil gauzak egiten. Dena den, eta hau nire iritzia da, iruditzen zait rock munduan gabezia handia daukagula, oraindik 70 urtean gaudela dirudi eta irrati formulak ere denarekin ahal duela; esan dizut hau nik neuk pentsatzen dudana da. Ez dugu gauza asko ezagutzen, kanpotik eta barrutik edan behar dugula uste dut. Hemen, gure artean, gauza onak egiten dituen jendea dago eta ezin ditu bere lanak argitaratu, dirurik ematen ez duelako edo irrati formula horietan sartzen ez delako.

Nondik edaten duzu?
Musika mota guztiak entzuten ditut; klasikoa, rocka, jazza, folka, flamenkoa... gehienak gustatzen zaizkit. Gitarraz gain, beste musika tresna batzuk ere baditut gogoko: perkusioa, zaharkako flauta, baxua...

Eta herriko azpiegiturak egokiak al dira?
Bai, orain arte lokalik ez genuen eta orain baditugu. Lokalak ondo egonik ere, aireztapen arazoa dutela esango nuke, udan eta ordu batzuk daramatzazunean bertan lanean ito egiten zara eta. Salbuespen horretaz gain, nik herriko jende gaztea bertaratzera animatuko nuke.

Musika eskola abiapuntua izan daiteke?
Ez dut uste. Musika eskolak agian beste alderdi batzuk bultzatzen ditu eta lokal horietan zorionez edo zoritxarrez rocka da gehien lantzen dena. Mutrikun pila bat rockero dago eta rockero zaharrek ere martxan jarraitzen dute: Juan Carlos Perez, Andoni Basterretxea... Luzerako soka daukagu!

Zure lantxoak ere egin dituzu, konposatu izan duzu...
Bai. Nitaz gain taldekoek ere parte hartzen dute kantuak egiten, denon artean aritzen gara. Orain grabatu berri dugun diska honetan hemengo musika tresnak ere sartu ditugu, txalaparta, trikitia, txirula, irrintziak... diska polita gelditu dela iruditzen zaigu.

Luze eta zabal aritu arren, hurrengo baterako ere utzi behar kontuak. Eskerrik asko Miguel eta zorterik onena opa dizue Kalaputxik zuen ibilbidean.



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

koadrila afariak, bazkariak, bataioak,
eguneroko menua
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN
MUTRIKU



HERIOREN ORDUA

Santu guztien eta arimen egunak ospatu berri ditugu. Guztiok konturatzen gara egun horiei beste kutsu bat ematen ari gatzaizkiela, igarotakoekin alderatuta. Berdin heriotzari berari ere.

Badirudi azken mende erdira arte heriotzarekiko hurbiltasuna gizartearen adierazgarrietako bat izan zela; gaur egun, ostera, heriotza aldentzen, urruntzen saiatzen garela. Heriotza ez dugu solaserako gai, haurrek ez dute ezagutzen edo ez dute ezagutu behar, hileta zerbitzuak, tanatorioak... Lehen hurbilekoak ziren kontuak gure eguneroko bizitzatik aldentzen doaz.

Ez goaz arrazoietan murgiltzera, gure Mutrikun adin bat dutenek bizi izan dituzten ohiturak azaltzera baizik. Horretarako, Pepita Larrañaga "Pepita txiki", Joseba Lete, Imanol Elezgarai, Luken Goenaga, Jose Mari Gazagaetxeberria, Joakina "Maixa" eta Manuela Egaña "Etxezabal" izan ditugu informatzaile. Jarraian, beraiek kontatutakoak.

ELIZAKOAK

Gaixoa hil aurreko uneetan aurkitzen zenean "eleizakoak" (olio santua, eukaristia eta konfesioa) eramaten zitzaizkion. Apaizak, akolitoak eta gaixoaren ingurukoek kandelak hartuta osatzen zuten taldea. Akolitoak faroltxo berezi bat eramaten zuen, non, kandelatxoaz gain, eskilatxo bat zeraman atxikirik. Hari eraginda Jaunaren presentzia adierazten zuen, igaro bidean ingurukoak belaunikatu zitezen.

Etxean aldaretxo bat prestatzen zen, eta, haren gainen, kurutzeaz eta kandelez aparte, akolitoarentzako txanpon batzuk jartzen ziren papertxoan bilduak.

Elizatik irteterakoan kanpai doinuak joten ziren: bost aldiz jarraian "don" kanpaia (kanpandorreko handiena eta soinu baxuena duena), hiru aldiz errepikatzen zena tarteko etenarekin.

Baserrietara joan behar izaten zenean beste farol arinago bat eramaten zen, eta akolitoak, noizbehinka edo norbait inguruan nabaritzen zuenean, "tilin", "tilin-tilin" joten zuen txilinarekin.

HERIOTZAREN ADIERAZPENA

Etxe-etxekoei aditzen emanda, herritar guztiei herrian heriotza gertatu zela jakinarazteko "hilkanpaia" joten zen: bi aldiz "don" kanpaia, etena, bi aldiz berriro, etena, eta hiru aldiz kanpai bera, guztira zazpi bider. Joaldi hau "angelus" kanpaiaren ondoren joten zen egunsentian, eguerdian edo arratsean, heriotza gertatzen zen orduaren arabera.

Etnologoek jasota dutenez, baserrietan animaliei ere adierazten zitzaien etxeko norbaiten heriotza gertatua; gure informatzaileek ez dute gogoratzen, baina Joakinak dio Arantzamendin erleak zituztela eta haiek zaintza berezia izaten zutela norbait zendu ondorengo urtean (kandelentzako argizari beharrarekin du lotura).

BEZTITZEA EDO HILA JANZTEA

Baziren emakume batzuk, hartara ohituak, etxekoen laguntzarekin eginkizun horietara prestatzen zirenak. Eugeni Eizagirre (Kilkerra) izan omen zen horietako bat, gazteagoekin irakasle lanak ere bete zituena.

Orduko Arrasateneko dendan (gaur Correos dagoen tokian) saltzen zituzten eginkizun horietarako ehun bereziak, eta etxean josten ziren. Gizonezko ezkongabeak sotana beltzez janzten zituzten, normalean, eta ezkonduei, frantzizkotarren ordenako jantziz. Baziren, baita ere, kaleko erropekin janzten zituztenak ere, hala izan da Manuelaren ezagutzan. Emakumeak beren soineko beltzekin apaintzen ziren eta askotan Ama Doloretakoaren antzera, hau da, aurpegia zapi zuri batez inguraturik zutela mantila beltzaren azpitik.

Gizonezkoei bizarra kentzen zitzaien eta kurutze bat jarri esku artean. Emakumezkoek, ordea, errosarioa eramaten zuten. Denei aurpegia itxuratzen zitzaien era egokienean.

Hilkutxak "Akitxiki" arotzak egiten zituen neurrira, ehun beltzez estali, eta borla zein apaingarri bereziak jarri kategoria edo prezioaren arabera.

BEILA

Zendua etxean egoten zen hilkutxan sartuta eta estali gabe. Egunean zehar doluminak ematera etortzen zirenek "Aita gure" bat errezatu ondoren, ur bedeinkatuz buztitzen zuten zendua erramu adartxo batez. Ohitura handia zegoen hilak bisitatzera joateko, eta haurrak ere joaten ziren, nahiz eta senitartekoak ez izan.

Iluntze aldera, errosarioa errezatzen zen hildakoaren alde, eta gero, gaubeila egingo zuen gizon taldea gelditzen zen etxean. Emakumeek kafea "ttanttarekin" uzten zieten prestatuta.

ENTIERROA

Hilkutxa itxi ondoren atarira jaisten zen gorpua, eta hartarako prestatutako mahai baten gainean ezartzen. Apaiza iristean otoitza egiten zen, eta ondoren, hilkutxa lau gizonen artean bizkarrean hartu eta elizarako bideari ekin. Orokorrean bide motzena edo errazena hartzen zen, nahiz eta, Kanteratzean zehar egindakorik gogoratzen duten. Aurretik akolitoa kurutzearekin eta haren atzetik abadea noizbehinka salmoak latinez kantatzen; abadearen atzetik, zerraldoa, eta honen atzetik gizonezkoak, familiakoak aurretik zirela; ondoren, emakumezkoak, familiakoak aurrean jarrita.

Eliz atariraino heldutakoan azken errespontsua egin eta kanposantuko bidea hartzen zen. Zerraldoa ezzen, gaur bezala, kaperatxora eramaten; zuzenean lurperatzen zen errezu baten ondoren. Laguntzera joaten zirenek lur zati bati muin egin eta zulora botatzen zuten, zerraldoaren gainera.

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Ondoren, kanposantutik elizara joan eta han hileta elizkizuna hasten zen, apaiz guztiek aldarean salmo kantatzeari ekinda (ordu erdi bat). Bitarte horretan, "a tiempo"ko mezak ematen zituzten kanpotik etorritako apaizek alboko eta kapillako aldaretxoetan (aldi berean bost ere izaten ziren).



Hileta elizkizun hauek hiru kategoria edo mailakoak ziren: "primerisima", "primera" eta "segundakoak". Batetik besterako aldeak honakoek erakusten zituzten: abade kopurua (hiru edo bat); hauen jantziak (belusezkoak, brodatuak edo arruntagoak); organo, kantu edo koruko kantari kopurua; grada erdian jarritako tumulu, katafalko edo katabuten (Mutrikun "tumultua") tamaina eta, baita ere, pizten ziren argien kopurua.

Mezatan, ohi zenez, gizonezkoak bankuetan jartzen ziren (hauek elizako aurreko aldea betetzen zuten), eta emakumeak atzeko aldean, belaunaulkietan. Aldareare aurreko pasiloan ipintzen zen tumultuaren atzean ohial beltz bat jartzen zen lurrean, aurrealdean kurutzea brodatua zeukana eta atzealdean R.I.P. inskripzioa. Ohialaren atzean hiru emakume alargun jartzen ziren, zenduaren familiakoak edo hurbilekoak.

Primerisimako mezetan hiru mailako tumultua jartzen zen. Horren neurriak, honakoak: 2,5x1,1x1,1 m. lehen pisuak; 2x0,8x0,6 m. bigarren pisuak, eta 1,1x0,5x0,4 m. hirugarrenak (gutxi gorabeherako neurriak). Egitura handi hori ohial beltzez estaltzen zen eta sei zutargi handiz inguratzen zen. Atzeko aldean kurutzea eta akolitoek eramaten zituzten bi kandela luze alboetan. Primerako mezetan, berriz, bi garaiera izaten zuen tumultuak, inguruko kandelabro kopuru berarekin eta atzean kurutzea jarrita, kandelarik gabe. Segundakoetan, azkenik, ez zen izaten tumulturik; ohial beltza lurrean eta kurutzea soilik.

Ohial beltzaren atze eta ezkerreko aldean, sari edo estipendioen bandeja jartzen zen. Papertxoetan bildutako diru kopurua ezberdina izaten zen kategoria bakoitzean. Apaiz, kantore, akolito eta abarrek diru horietatik kobratzen zuten.

Astigarribiakoak San Andres elizan izaten zuten beren entierroko meza, eta hobiratu ere bertan hobiratuak izaten ziren. Gaur egun ere, Astigarribian bertan enterratzen dira.

Abadeak gorpuaren bila irteten zuenetik meza bukatu arte "don" kanpaia eta "din" doinua duen San Blas kanpaia (iparraldera dauden bietako bat) joten ziren, txandaka, hogei segunduren tarteekin.

JATETXEA
ERRETEGIA

- Enpresa bazkariak
- Bataio, Jaunartze, Ezkontzak
- Sagardotegiko menua
- Kuadrilako bazkari-afariak
-Eguneroko menuak

Kalbario gaina, 1 - Tel.: 943 60 45 62 / 699 61 14 24

Gizonezkoen ileapaindegia

IMOTZ

Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

Gure informatzaileek entierro zibil bat besterik ez dute ezagutu, eta hau, mila bederatziehun eta hogeita hamabian. Elizatik pasatu gabe kanposantuko sarreran egin zioten azken agurra, eta "cura laico"aren lana Patxi "Monte"k egin zuen. Kanposantu barnean eman zioten lurra. Kanposantuko lurrei atxikita beste lur zati bat zegoen, bere buruaz beste egindakoei lur emateko.

Izurriteen eraginez hiltzen zirenak ez ziren elizatik pasatzen, eta jenderik ibiltzen ez zen bideetatik eramaten zituzten kanposantura, adibidez, Azkiaga eta "Bist Eder" albotik kanposantu atzera zeramana. Itsasoan galdutako asko ere zuzenean eramaten zituzten kanposantura.

Baserritarrak hiltzen zirenean, baserritik elizarainoko bidea bailarako gazte indartsuek zerraldoa bizkarrean hartuta egiten zen, txandakatuz, andabideetan zehar.

DOLUA EDO LUTOA

Hileta meza egunetik aurrera, bederatziurrena egiten zen etxean, egunero errosarioa errezatuz. Mutrikun ohitura hau Pello Jaunak elizara pasatu zuen. Zenbait baserritakoak Kalbarioko ermitan errezatzen zuten emakume batek zuzenduta.

Urtebetera, meza bat ematen zen hildakoaren alde. Astigarribian igandero ere ematen zutela gogoratzen dute, eta abadeari librako ogia emateko ohitura zegoela. Meza bukaeran apaiza argizariak piztuta egoten ziren lekura joaten zen, eta "Pater Nosterrak" errezatzeari ekiten zion ohitura zen diru kopurua jaso ahala, zenbat eta diru gehiago jaso orduan eta "Pater Noster" gehiago errezatu.

Etxeko guztiak, haurrak izanezik, beltzez janzten ziren urte oso baten eta bigarrenean "medio lutoz". Alargunek mantelina beltz bereziak janzten zituzten apaingarririk eta brodaturik gabeak. Gure kontalariek diote pobreak, eta orduan ia denak ziren pobre, arropak tindatu eta apurtu arte hala jarraitzen zutela. Beranduago brazalete beltzak eta hasi ziren jartzen gabardina, beroki eta horrelako jantzietan, eta tira beltz batzuk txaketen papar-hegaletan.

Jakina, doluarekin zeudenek ezin zuten dantza egin ezta zinera joan ere, korportamendu egokia izan behar baitzuten.

ARIMEN EGUNA

Apaiz bakoitzak hiru meza ematen zituen purgatorioko arimen alde.

Haurrak kanposantu inguruan jolasten zuten, eta kalabazak hustu eta barnean kandela jarriz leku ilunetan jartzearena izaten zen jolasetako bat.

Gaur egun horietako batzuk oraindik ere ezagunak egingo zaizkigun arren, lehengo kontuak izan dira berritu ditugunak. Irakurleek lehengo ohiturei buruz gehiago jakin nahiko balute, ziurrenik hurre-hurre izango dute aukera etxeko zaharrei galdetuta, azken batean, lehengo kontuez jakin nahi badugu lehengo jendeari galdetzea bezalakorik ez dago.

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak...
Azaroan itxita oporragatik
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

Kiropraktiko Zentroa
- Bizkarreko, lepoko eta buruko minak.
- Oin, orkatila eta belauneko arazoak.
- Sorbaldako arazoak.
- Hernia diskala.
- Eskuetako inurridura.
- Tenislari ukondoa.
- Golf-jokalari ukondoa.
- Erditze ondorengo minak.
- Estresa.
- Migraina.
- Ziatika.
- Lunbalgia.
- Zorabioa.
- Sakroilitia.
- Tortikolia.
- Fibromialgia.
- Neke kronikoa.
- e.a.
J. Carlos Sánchez D.C.
Kiropraktikan Doktorea - Glamorganeko Unibertsitatea (Erresuma Batua)
Bergara kalea 23, 2. esk. - Donostia Tel: 943 245 339

Eva Stockmaier, 26 urteko neska austriarra, gure artean dugu Mutrikuko institutuan. Lektore lana egiten du eta berarengana hurbildu gara pixka bat hobeto ezagutzeko asmoz.

EVA STOCKMAIER, IRAKASLE AUSTRIARRA INSTITUTUAN

Austriarra zara, baina zein lekutakoa zehatz mehatz?

Neukirchen am Grobvenediger deitutako herri batekoa naiz, Salzburgotik hurbil dago.

Kontaguzu zerbait zure herrialdeari buruz...

Austria oso menditsua da, nire herrian Grobvuenediger izeneko mendia dago (3667 m). Hohe Tauern parke nazionalean Europako urjauzi handienak ditugu, Krimml ur-jauziak hain zuzen ere. Austrian zehar laku asko aurki daitezke, eta bertan jendeak udan igeri egiten du. Austriako hiririk garrantzitsuenak Salzburgo, Viena eta Graz dira. Austria ezagutzera datozen turista gehienak bertako monumentuak, eraikin historikoak eta museo garrantsitsuenak ikustera joan ohi dira.

Lektore lanetan zabiltza Mutrikun... Zer ikasi zenuen honetan lan egiteko?

Lehenik, lehenengo hezkuntzako magisteritza egin nuen. Gainera, logopeda lanak egin ditut. Irakasle guztiok "Comenius" izeneko Europako programa batean har dezakegu parte eta bertan irakasle gazteok aukera dugu atzerrira lanera joateko.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Nire ama-hizkuntza alemaniera da, baina ingelesa, italiera eta frantsesa apur bat ere hitz egiten dut.

Zer lan mota egiten du lektore batek?

Irakasleari lagundu behar diot. Ahozko ariketak egiten ditut ikasleekin eta ingelesez hitz egiteko motibatzen ditut.

Austriatik Mutrikuko institutura... Egon al zara lehenago nonbait lanean lektore moduan?

Unibertsitatetik irten ondoren, urte batez lektore lana egin nuen Italian. Gero alemaniera irakasten egon nintzen sei hilabetez Pariseko lehen hezkuntzako eskola batean.

Gustora al zaude ikasleekin? Zer moduzkoak al dira?

Oso gustura nago, ikasleak oso jatorrak dira.

Nolatan Mutrikuko institutura?

Egia esan, nik ez nuen aukeratu. "Comenius" programako agentziak Mutrikuko institutura bidali ninduen.

Zenbat denbora emango duzu gure artean?

Hemen martxora arte egongo naiz.

Gogorra al da familia eta lagunik gabe ezagutzen ez duzun leku batera joatea ezezaguna duzun toki batean lanean hasteko?

Oso zaila da etxetik alde egitea, noski... Baina nire familia eta lagunak gabonetako oporretan berriro ikusiko ditut...

LABURREAN

Austria ala Euskal Herria? Austria

Hango janaria ala hemengoa? Hango janaria

Hango klima ala hemengoa? Hangoa

Mendia ala hondartza? Mendia

Klasikoa ala Folka? Klasikoa

ANA ANDONEGI ETA MARKEL RODRIGUEZ (Institutuko Prentsa tailerrekoak)

HALLOWEEN MEXIKOTIK MUTRIKURA

Halloween hitzak "All hallow's eve" esan nahi du. Aintzinako ospakizun honek erlijiosotasuna galdu du eta gaur egun munduan zehar jai ludiko gisa ospatzen da. Ospakizuna urriaren 31ko gauean egiten da.

Halloween eguna egutegi zeltiarraren jaia da. Irlandan du jatorria baina, hala ere, Estatu Batuetan ere ospatzen da, hainbat herriadetan ere beste izen batzuen azpian ezagutzen delarik (Euskal Herriko Gaba Beltza, esate baterako).

Hainbat herrialdetan ospakizun handiak egiten dira gau honetan, lekuan lekuko kulturaren arabera. Mexikon, adibidez, hilerriak bisitarien kandelekin argiztatzen dira eta haien opariak hilobiaren gainean uzten dira. Jai honi "hildakoen eguna" deitzen zaio, azaroaren lehenengo eta bigarren egunean ospatzen delarik. "Mictlantecutitli" jainkoa miresten da, hildakoen erresumako jauna. Herriko jendea hilobiaren inguruan esertzen da, eta bera falta denetik gertatutakoak elkarri kontatzen dizkiote. Bitartean, janaria eta musikak laguntzen dute festa hau. Hala ere, azken urteetan, Estatu Batuetako eraginagatik seguruenik, garezur formako kalabazak erabiltzen hasi dira.

Hong Kong-en, ordea, ez da horren erraza argidun kalabaza bat egitea, kontuan hartuta hauek Japoniatik ekarri behar dituztela eta, horren ondorioz, beraien prezioa 128 dolar baino gehiagora iritsi daitekeela.

Estatu Batuetan, aldiz, umeak etxez-etxe joaten dira sorgin, eskeleto eta beste hainbat pertsonaia beldurgarri mozorratuta gozoki eske. Umeek egiten duten joku honi Ameriketan "Trick or Treat" deritzo.

Euskal Herrian, eta Mutrikun bereziki, Gaba beltzean gehienbat euskal dantza edo antzerkiak egiten dira, aintzinako euskal mitoligiako pertsonaietan oinarrituta (sorginak, lamiak...). Aurtengo Gaba beltzean, esate baterako, umeentzat beldurrezko ipuin kontaketa bat egon zen gauaren hasieran. Ondoren, gauerdian, helduentzako ipuin eta dantzak egon ziren Beheko plazan, Mutrikun itzal-antzerki eta itzal-dantzak egiten diren lehenengo aldia izanik.

IRATXE IPARRAGIRRE ETA SARA QUEIPO (INSTITUTUKO PRENTSA TAILERREKOAK)

Mijoa
JATETXEA

ASTE OSOAN EGUNEKO MENUA:
• Aste barruan 7 €
• Aste bukaeran 12€
Mijoa industrialdea - Tel.: 943 604 464 / 943 603 180 - Saturraran (Mutriku)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

MUTRIKUKO MUSIKA BANDA,
doinuen bidetik herriko historian zehar (eta II)

XX. mendeak aldaketa ikaragarriak ekarri zituen orduko bizimodura. Bandak, orduko moral zorrotzari aurre eginez, bikote dantza "lotsagabe" haiek eskaintzean, gazte maitemindu belaunaldi bat baino gehiago gozarazi du bere ibilaldi luzean. Ez gerrak ez ondoko garaiak ez zuten nahikoa indar izan, sentipenak sentipen, mutrikuarron ondare paregabe dugun Banda desagertzeko bidean jartzeko. Santa Zeziliaren babesak izango zuen, ziurrenera, horretan guztian zerikusirik, eta, nola ez, baita izandako zuzendari nahiz herritar musikari paregabe haiek guztiak izatean.

Agintariek, iragan mendeko azken urteetan hasitako udaldiko igande nahiz jai egunetako musika emanaldiek lortutako onespena ikusirik, urtero bultzatzen jarraitu zuten Banda, hutsik egin gabe. Era berean, debarrek musika bandarik ez omen zuenez, hor ageri zaigu Debako alkatea 1902ko uztailean Mutrikukoari eskabidea luzatzen, ordura arte ostegunetan soilik eskaintzen zituzten saioak igandeetara ere zabal zitzaten baimen eske. Baiezkoa eman zien, jakinaraziz Mutrikun emanaldia zazpietatik bederatzietara izanik, lauretatik seietara bitartean izan beharko zuela Deban. 1908an oraindik hor jarraitzen zuten Debara joaten, harako bidaia kamioietan eginda. Zuzendaria ez beste musikari guztiak zaletasun hutsez aritzen zirelarik eta urteko emanaldi egutegia loditzen zihoakienez, prestaketei nahiz saioei denbora gehiago eskaini beharrak eraginda, Bandak izendatuta zuen 625 pezetako laguntza mila pezetaraino igo zezala eskatu zioten Udalari. Udalak, ordea, dirulaguntza 825 pezetaraino igo zien.

1909ko Malen Txiki egunean beren trebezia erakusteko aukera izan zuten Bandako musikariek. Udalak, Mutrikun eraiki zen portu berriaren egile Evaristo Txurrukaren, Mutrikuko kondearen, zein honen sendiko Trafalgarreko heroia izan zenaren omenez, antzinatik Arriturriaga plaza eta Iriarte izenez ezagutu izan ziren plaza eta kalea Txurruka Plaza eta Konde kalea izenez bataiatzea erabaki zuen. Zenbait Txurrukatar kide ospetsu ere hurbildu zen ospakizun hauetan parte hartzera. Udal agintariek harrera egin ondoren, herriko kantari gazteek abesturiko Perossiren meza entzun eta alkatearen ohiko hitzaldia bukatzean, plazaren izen berria azaltzen zuen harria agerian jartzen ari zen bitartean, Bandak Millan Armero-

ren "Zortziko Txurruka" pieza bikaintasunez jo zuen. Jarraian, gauza bera egin zuten Konde kalea izena jartzen zuen harriarekin. Ospakizuna burutzeko, orain berritzen ari diren Plaza Txikin izandako herri bazkariaren amaieran, Bandak kontzertu ederra eskaini zuen, guztien artean Aranbarriren lan ezberdinen zatiz osaturiko pieza izanik txalotuena.

1911ko udan, musikariek zerbait gehiago irabazi nahian, ordainsarien igoerarekin batera Bandaren arautegi berria idatz zedin eskatu zuten. Udalak adierazi zien 1912rako onarturiko mila pezetako diru kopurua, hemezortzi musikarik osaturiko bandarentzat baino ez zela, sei 1. mailako, sei 2. mailako eta beste sei 3. mailako, azterketa bidez aukeratuak guztiak.

Nicanor Iturrino 1919an hil zen, Bandaren etorkizuna oinarri sendoetan finkatuta utzita. Haren atzetik, Bandako nahiz Parrokiako organo-jole postuak bere seme Francisco Iturrinok (1892-1934) bete zituen. Esan behar, orobat, organista postua betetzea zela eta, izan zela gorabeherarik udalaren eta eliz batzordearen artean. Horrenbestez, hirugarren belaunaldiak heldu zion bere aurrekoek ongi jorraturik utzitako ildoari.

Bere ibilian Bandaren egitura sendoturik, betebeharrak eta ardurak finkatuko zizkien beste arautegia idatzi zen 1922ko uztailean, 34 ataletan banatua. Bertan, urteko kontzertuen egutegia zehaztu zen; Alameda plazan (gaurko Beheko plaza), Kalbario jaietan eta urritik ekainaren amaiera bitartean, domeka arratsaldetan, hamabostean behin, jai nagusienak barne, neguan lau pieza eta udaberri-udaldian bost pieza joko ziren. Txurruka plazan, aldiz, uztailetik Kalbarioak bitarteko domeka nahiz jai egunetan, bost pieza joko ziren emanaldiko. Plaza Txikin, azkenik, Santiago, San Inazio eta abuztuko Ama Birjina egunetan. Goizeko emanaldiak ziren eta hiru pieza eskaini behar zituzten, bat beti kontzertukoa izango zelarik. Prozesio nahiz kalejiren egunak ere zehaztu zituzten. Garizuma zen atseden aldi bakarra. Zuzendariak 1500 pezetako soldata zuen eta 1. mailako musikariei, berriz, eguneko 60 zentimo, 2. mailakoei, 45 eta 3. mailakoei 25 zentimoko ordainsaria onartu zizkieten. Udalak, gainera, Bandarentzat 1750 pezetako laguntza eta partiturak erosteko 150 pezeta onartu zien. Gazteek, musika akademiako ikasle izateko, eskolatuak egoteaz gain, zortzi urtetik gora eta hamalau urtetik behera izan behar zuten. Arautegi honek 1932an eta 1935ean egokitze ezberdinak izan zituen. Jakinarazi behar, bestalde, gutxienez 1932az geroztik Banda 25 kidek osatu zutela, urte dezentez kopuru horrekin jarraitzeko.

Francisco Iturrino 1934ko martxoan hil ondoren, Errepublikako tentsio politikoek urtebetez atzeratu zuten Bandaren zuzendari berriaren aukeraketa. Azkenik, 1935eko martxoaren 16an, ezohiko bilkura izan zen. Jendez mukuru, giroa bero, sorturiko liskarrek bilkura bertan behera uztera eraman zuten. Astebetera, lasaiturik, aurkeztutako hamasei hautagaien artean Artaxonako Javier Goikoetxea nafarra izan zen aukeratua. Bost urte beranduago, ordea, honek utzi egin zuen zuzendaritza kargua Zarautzera joateko. Paco Arrietak (1907-2002), behin-behineko zuzendari zelarik, tinko heldu zion betebehar berriari, zaku lantegiko lana solfeoaren eta instrumentuaren irakaspenekin nahiz Bandaren zuzendaritzarekin uztartuz.

Behinola bezala, musikariek esku-sariak jasotzen jarraitzen zuten egindako lanagatik eta, horrela, 1960ko hamarkadaren erdialdera, alkateari ordainsari horiek igo zitzala eskatzean ezezkoa jaso zuten, Bandarako beste batzuk aurkituko zituela esanda. Alkateak Cecilio Pagoagari deitu zion banda prestatzen joan zedin. Lehengo Bandako gutxi batzuek baino ez zioten baiezkoa eman, eta kide berri batzuk aurkituta osatu ahal izan zuen egitasmo berria. Urte gutxi batzuk baino iraun ez zituztenez, Udalak berriro Paco Arrietari deitu zion, eta honek, berarekin aritutako musikariekin hitz egin ostean, hamabost egunen buruan berriro ere Banda martxan jartzea lortu ahal izan zuen. 1970. hamarkadan, ordea, musika ikastera gazte gutxi hurbiltzen zenez, musikari kopurua murrizten joan zen eta Banda ahultze bidean jarri zen.

Egoera ikusirik eta aita adinean aurrera zihoanez, Pacoren seme Agustin Arrietak Banda biziarazteko lekukoa hartu zuen, aita joaldiak zuzentzera mugatuta. 1980ko lehen urteetan gazte batzuei deitu zien, tartean lehen aldiz neskak ere bazirela. Prestaketetan aritu ondoren, jotzen hasi zirenean arnas berritze horren lehen printza pozgarriak antzeman ahal izan ziren. Aldi berean, urte batzuetarako iraupena ziurtatzeko asmoz, Narrupe musikal sortzea erabaki zuten izen bereko elkartearen babesean. Esan behar, baita ere, 1980ko erdialdera, herriko musika eskola lehen urratsak ematen hasia zela. Urte gutxitan, inoiz pentsa ezin halako musikari gaztez hornitu zen Banda, mutil nahiz neska. Udalak, 1990ko irailean, Banda zuzendu eta musikari emari hau guztia behar bezala bidera zezan, Agustin Arrieta kontratatu zuen.

Zorionez esan dezakegu eta pozik esan ere, maila handiko Banda dugula herrian, eta hasi berri den XXI. mendeko ibilian hamaika sentimendu ezti bizitzeko aukera eskainiko digutela. Mutrikuarrok ondare ederra jaso dugu, zaindu eta maita dezagun.

JOSE ANGEL LIZARDI

ENERGIA KONTSUMOA ETXEAN

Izan ere, energia ondasun urria dugu, ingurumeneko beste alderdi asko bezalatsu, ura, adibidez. Energia iturriak ez dira agortezinak, eta horiek zaintzea denoi dagokigu, gure txikian bada ere. Aurreko Kalaputxi batean adierazi zenez, herriko ikastetxeetako ikasleak aurten energiaren kontsumoaren azterketan jardungo dute, baina herritar guztiok, geure etxeetan, hainbat neurri har dezakegu helburu bera hartuta: Energia aurreztea.

Gure etxeetan egiten dugun energiaren kontsumoa lau multzo handitan sailka daiteke: Berokuntza, ur bero sanitarioa, etxetresna elektrikoak eta argiztapena. Jarraian, bakoitzaren inguruan jardunda eta aholku batzuk eskainita, ikusiko da gure ohiturak pixka bat aldatuta asko egin dezakegula energia aurrezteko.

BEROKUNTZA

Etxean kontsumitzen den energia guztiaren %47

Berogailua piztuta dagoela, leihoarik ez ireki. Irekitakoan, 10 minutu nahiko da gela bat aireberritzeko.

Gutxitan erabiltzen diren gelatan berogailurik ez piztu, eta atea itxita eduki.

Berogailurik ez estali toailak, arropa eta beste ezer gainean jarrita.

Gauean, pertsianak erabili hotzetik babesteko.

21° nahikoa da etxean goxo-goxo egoteko. Hortik gora, gradu bakoitzeko %7 igotzen da kontsumoa.

Manga motzean ibili gabe, jertsea jantzita lan gutxiago eragingo diogu berogailuari.

Leihoak aldatzekotan bagabiltza, hobestu ditzagun kristal bikoitza dutenak.

UR BERO SANITARIOA

Etxean kontsumitzen den energia guztiaren %20

Ur kontsumitzen dugunean, ezer baino lehen, kontziente izan behar dugu ondasun naturala kontsumitzen ari garela eta hori ere zaindu egin behar dugula. Hortaz, txorrota behar dugunean baino ez dugu zabaldu behar; izan ere, txorrota minutu batez zabalik utzita 15 litro ur joan daitezke kainozuloan barrena.

Gainera, ur beroa kontsumitzen dugunean, zenbait neurri hartzea komeni da:

Txorrota beti eduki ur hotzaren posizioan; beroaren posiziora beharrezko denean baino ez eraman.



Dutxa erabili, bainuaren ordez; horrela, uraren eta energiaren herena kontsumituko dugu.

Ura 35°tan irtetea nahiko da eguneroko garbitasunerako.

Dauden sistemen artean, elektrizitate bidezkoek dute eragingarritasunik txikiena.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Etxean kontsumitzen den energia guztiaren %26

Etxetresna elektriko txikiak energia kontsumitzaile handiak izan daitezke gure etxeetan. Hori dela eta, garrantzitsua da energiari dagokionez ahalik eta tresna eraginkorrenak aukeratzea.

Ezaguna egingo zaigun etiketaren bitartez, fabrikatik energia mailari buruzko informazioa ematen digute, tresnak zein neurritan diren eraginkor adierazteko, Atik Gra doan eskalaren eta berdetik gorrirako kolore gamaren bitartez. Kontuan hartu behar dugu eraginkortasun txikiko etxetresna batek eraginkor batek kontsumitzen duen energiaren halako 3 kontsumitu ahal duela.



Gure etxeetan eguneroko energia erabiltzeko moduak eragin zuzen-zuzena du ingurumenean zein gure osasunean eta gure ekonomian. Zaila egiten da imaginatzen, baina, beste alor askotan bezala, gure eguneroko ohitura txikiak energiaren kontsumoan ere pixka bat aldatuko bagenitu, mesede galanta egingo genioke, esan bezala, bai ingurumenari bai gure poltsikoari.





HOZKAILUA ETA IZOZKAILUA

Gauza berorik ez sartu hozkailuan.

Etxeko beharretara egokitzen den hozkailua erosi.

Hozkailua bero iturrietatik ahalik eta aparteen kokatu.

Energia alferrik ez gastatzearren, hozkailuaren atea behar den denboraz izan zabalik. Atea ondo itxia eduki.

Hozkailuan izotza egiten bada, 5 milimetroko lodiera hartu aurretik deiszoztu, bestela, gehiago kontsumitzen hasiko da.

SUKALDEA

Suaren zabalera osoa estaltzen duten ontziak erabili, beroa ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Lapikoak estali egosialdiak irauten duen bitartean. Boro-borka hasten denean sua jaitsi, eta janaria egiten bukatu baino lehenxeago itzali sua, beroaren hondarra aprobetxatzeko.

Ahal dela, presio-lapikoak eta lapiko azkarrak erabili. Janaria egiteko denbora gutxiago behar dutenez, askoz energia gutxiago kontsumituko da.

Labea erabiltzen dugunean, ahalik eta gutxienetan zabaldu, beroak irten ez eta energia alferrik ez gastatzeko.

GARBIGAILUA

Garbigailua osorik bete, karga erdiko programa ez badu behintzat. Horrela, gutxiagotan erabiliko dugu garbigailua eta energia gutxiago kontsumituko dugu.

Ahal dela, tenperatura baxuan edota hotzean garbitu. Ur berotzeak energiaren kontsumoaren %85 dakar.

Iragazkiak edo filtroak ondo-ondo garbitu, errendimendua hobetzeko eta kontsumoa txikitzeko.

Eguraldi ona denean, ez gehiegi erabili zentrifugadora eta lehorgailua. Eguzkiak merke-merke egingo du lan gure alde.

ARGIZTAPENA

Etxean kontsumitzen den energia guztiaren %7

Eguzkiaren energia ahalik eta gehien aprobetxatu.

Gela batetik irteten bagara, itzali argia.

Argiaren indarra behar den erabileri egokitu.

Fluoreszenteak erabili argi asko eta luzaroan behar den tokian, sukaldean adibidez. Bonbila arruntek baino 5 bider gutxiago kontsumitzen dute eta bizitza luzeagoa dute.

Betiko bonbilen ordez kontsumo baxukoak erabili.

Argiaren intentsitatea neurtzen duten gailuak erabili, justu behar dugun argia izan dezagun eta energia justua kontsumi dezagun.

Laguntzaileak:
Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ingurumen Departamentua
Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
IHOBE
EuskoTren
Udalsarea 21

zorion agurrak

MILA
Itsasoko olatuek dakartzate zorion txipristiñak zuretzako! Zorionak!

MIKEL
Zorionak Mikel, azaroaren 20an urte 1 egin duzulako. Muxu haundi bat etxeko guztien eta batez ere Maialenen partez.

GORKA
Zorionak Gorka! Ez pentsatu zurekin ahaztu garenik eta prestatu txokolatadia. Zure familiaren partez, batez ere Josu, Eneritz, Maider, Urko eta Alainen partez.

AINHOA eta ION
Laister 11 eta dagoeneko 5 urte. Madariagako txikiak handitzen. Segi horrela! Familia guztiaren partez.

IRATI
Gure etxeko printzesari, bere 8. urtebetetzean Zorionak eta besarkada haundi bat. Aita, ama eta batez ere, Mikelen partez.

ANE
Zorionak Ane! Amama, osaba eta izekon partez maitasunez.

NATXO
Zorionak aitite! Bat gehiago! Musu handi-handi bat Eneko, Leire eta Jonen partez.

LEIRE
Azaroaren 27a laster datorrenez, zorionak Leire! Egin lekua gelan Enekok ekarriko dizkizun opari guztiak sartzeko!

DONATA
Gure Amak, gure amonak urte berri bat. Zorionak etxeko danon partez eta eutsi goiari!

RITXI
Gure baserRITXAR zinkuenton, txapela buruan eta hor konpon! Zorionak!

MADDI
Zorionak zure 2. urtebetetzean. Aupa poxpolin polita, jatorra eta mari matraka! Aita eta amaren partez.

AITZIBER
Aurretik zoriontzea ahaztu, baina urte berria ospatzeko egun asko dituzunez aurretik, on-ona, zoriontsu-zoriontsua eta oparo-oparoa izan bekizuz hurrengo 365 egunak. Zorionak!

JOAKIN
Aitxonak urte bat gehiago eta gero eta gazteago. Nola da hori posible? Bizitzari irribarre batez begiratuta, seguru. Zorionak, Joakin, eta jarraitu guri gauzak erakusten.

AURO
Abenduaren hasieran izango dugu hurrengo ospakizuna. Eman eta eman, hartu ere egin behar, neska! Tori gure zorionik zintzoenak! Zorionak Auro!

Etxeko inor edo lagunen bat zoriondu nahi baduzu, ekarri argazkia Luardora edo deitu 635748393ra. Guk hemengo txoko honetan sartuko dugu!

ZER DA? NON DAGO?

argazki zaharrak

1960 URTEAN: Luistarrak eta Mariaren alabak, merkatu plazan elkartuta.

1971 URTEAN 3 LAGUN

Ezkerretik hasita: Jose Mª Osinalde, Maribi Alkorta eta Joxe Agustin Elezgarai.

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

abendua
Kalaputxi, 67. zenb.

Abenduaren 2an, domeka

LEKEITIOKO ITZULIA ETA BAZKARIA
Mutrikuko Burumendi Mendi Elkarteak antolatuta

Abenduaren 7an, barixakua

ABENDUROCK KONTZERTUA!
SELEKTAH STEPI + DJ SUCIO (BAD SOUND SYSTEM)
Gaueko 22:30etan, Zubiaran tabernan.

Abenduaren 11n, martitzena

MENDI EMANALDIA:
EMAKUMEAK MONT BLANC-EN
Zabiel kultur etxean arratsaldeko 19:00etan.

Abenduaren 14an, barixakua

ABENDUROCK KONTZERTUA!
BEER BAND TALDEA
Gaueko 22:30etan, Subeltz tabernan.

Abenduaren erdi aldera

NEKAZAL BIODIBERTSITATE FERIXA.
• Erakusketa: bertako eta munduko artoa, garagarra, garia, patatak, olioa...
• Ogi dastaketa eta ogia egiteko tailerra umeentzat
• Hitzaldiak (Garia, ereinketatik errotaraino; Ogia egiteko sekretuak; Bertoko artoaren galera saihestea)

Abenduaren 21ean, barixakua

• **ODOL-EMATEA**
Anbulategian, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte

Abenduaren 21ean, barixakua

• **ABENDUROCK KONTZERTUA!**
COBRA taldea
Gaueko 22:30etan, Goiti-behera tabernan.

Abenduaren 22an, zapatua

• **SANTO TOMAS FERIA.**
• **OKELAR** bertso-paper lehiaketaren **SARI-BANAKETA**
• **Musika Eskolaren GABON KONTZERTUA**
Gauean 22,00etan, Parrokian

Abenduaren 24an, astelehena

OLENTZERO Mutrikuko kaleetan zehar

Abenduaren 26tik 29ra

Gabonetako UMEENTZAKO PARKEA frontoian
BERTANek antolatuta

Abenduaren 28an, barixakua

ABENDUROCK KONTZERTUA!
LOS YANEROS TALDEA + SORPRESA.
Gaueko 22:30etan, Gaztetxean.

Abenduaren 30ean, domeka

GOSPEL KONTZERTUA
THE UPPER ROOM bikotea.
Arratsaldeko 19:00etan, Santa Catalina komentuan

Tradizio zaharra gure artean
askori zaigu axola
ondorengoei transmititzeko
badugu zer eta nola.
Gure herrian zaletasuna
lantzen dabil Bertso Eskola
ohitura zaharra ez da galduko
zainetan badugu odola.

MUTRIKUKO
BERTSO-ESKOLA

OKE
LAR

MUTRIKUKO
BERTSO
ESKOLA

BERTSOPAPER SARIKETA

GABONETAN
umeen parkea
abenduaren 26tik 29ra
goizetan eta arratsaldeetan

Herrian gastatu,
BERTAN gozatu!

BERTAN
mutrikuko dendarien elkartea

gonbidapenak elkarteko dendetan eskuragarri abenduaren 1etik aurrera egindako erosketekin

ohe elastikoak · zezen mekanikoa ·
txikienentzako gunea · puzgarriak

Bertan gaituzu!

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.

Industrialdea Mijoa, s/n. P - 2.1 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) - ESPAÑA Telf. 943 - 60.31.41 / Fax. 943 - 60.44.39

E
12.00.566/SS
C.E.